

LIBURU aurrerapena >

Zu bezain ahul

— Gogoratzen —

Zirkinik egin gabe geratu da emakumea zuri begira, kalearen erdian. Aurrez aurre ikusi zaituenean, ahoa ireki eta sakon hartu du arnasa, aire guztia barruan gordetzaz. Bekainak altxatuz keinu egin diozun arte ez da hustu airez haren gorputza. Orduan bai. Orduan flotagailu bat bezala hustu eta zimurtu da haren aurpegia, irribarre egitearekin batera.

—Andoni... —esan du, ia aho-tsik gabe, flotagailuaren barruan geratzen zitzaion aire apurrarekin.

Irribarre egin diozu, eta bekokia, masailak eta begi inguruak zimurtu egin zaizkizula sentitu duzu. Haren zimurretan ikusi dituzu zureak. Haren aurpegian, zure flotagailu hustua.

—Andoni... —errepikatu du, eta dir-dir egin diote begiek, atso zahar dirudunei belarritakoek bezala.

Irribarre egin diozu berriz ere, azken bi hilabeteetan, kalera irten zinenetik hona, aurkitu dituzun aspaldiko lagun guztiei legez. Nola zauden galdetu dizu eta zuk ondo zaudela erantzun diozu, sorbaldak altxatuz. Hasperen egin du ondoren zuri begira, eta iruditutako zure hasperenarekin batera letra batzuek salto egin dutela airera, komikietako letrak bailiran. Aspaldi egon dira gordeta, hautsez beteta baitaude, eta airean, hautsarekin batera dantzan, silaba batzuk osatu dituzte, eta silabek hitz bat: Az-ke-ne-an, irakurri duzu airean. Azkenean, esan dizu hasperenarekin. Eta zuk irribarre zabalago bat eskaini diozu orduan, eta begiek dir-dir egin dizute zuri ere, kartzelan egondako hamasei urteetan «azkenean» hitzarekin mila aldiz egin duzula amets.

Dir-dir egiten dute haren begiek berriz, eta irribarre egin dizunean haren ahoan hortz zuri-zuriak agertu dira eta hogeitaz jausi zaizkio lurrera kolpean, eskuetatik labain egindako zerbeza botilak bezala. Orduan konturatu zara haren edertasunaz. Hortz zuriek flotagailuaren tolesdurak estali dituzte.

Tabernara sartu zarete, berak egindako gonbitaren ondoren. Zerbeza bana duzue eskuetan.

—Heldu behar zen eguna, ezta? Noizbait aurkitu behar genuen elkar, ez? —esan dizu barrezka, txantxetan bezala, belarritako distiratsuekin keinuka, eta zuk, ha-

masei urtetan kartzelan izandako entrenamendu eskasa agerian utziz, ez duzu irribarre beste erantzunik aurkitu. Irribarre egin diozu, eta lurrera begiratu duzu, lotsati, lurreko serbilleta tximurtuetan erantzunen bat aurkitzeko itxaropenarekin. Baina han eskerrik asko etortzeagatik baino ez duzu irakurri.

Herriko plaza ikusten da tabernako leihotik.

—Nola aldatu den dena, ezta? —esan dizu atzamarra leihorantz zuzenduz—. Hotela egin dute eskola zegoen lekuan.

Baiez egin diozu buruarekin, eta bat-batean eskolako gelako usaina gogoratu duzu. Klarion, liburu eta izerdi usaina. Futbolearen botatako izerdi sikua, eta maisuaren ahotsa ireki ezazue leiho hori, hemen ezin baita arnasarik hartu! Eta une batez pentsatu duzu non eduki dituzun gordeta hainbeste



Ipuingintzara itzuli da **Karmele Jaio** (Gasteiz, 1970), nobela ere probatu eta gero. 15 istorio bildu ditu 'Zu bezain ahul' liburuan, giza harremanetako ahulezia eta inkomunikazioak erakusteko. Honako hau da liburuan jasotako ipuinetako bat: 'Gogoratzen'.

denboran usain eta ahots horiek, eskola hitza entzunda bat-batean piztu zaizkizunak. Zergatik gogoratzen ote dituzu usain eta ahots horiek eta ez beste batzuk? Leihotik hotelera begiratzen duzun bitartean, zeure buruari galdetu diozu nork agintzen ote duen zer gogoratu eta zer ez.

Herria oso aldatuta aurkitu dela esan dizu.

—Normala da, ezta? Hainbeste urte kanpoan... —bota du—. Lau egun baino ez daramatzat hemen eta...

Orduan, harrituta, konturatu zara bera ere luzaroan egon dela herritik kanpo, zu bezalaxe. Eta susmatzen hasi zara ez dakiela kartzelan egon zarenik azken hamasei urteetan. Herri osoan bakarra izan behar duela pentsatu duzu.

—Oraindik gordetzen dut eman zenidan txanpon zahar hura. Gogoratzen? —esan dizu, barrezka orain ere, eta aurpegia gorritu egin zaio pixka bat. Zuk ez diozu ezer erantzun eta zerbeza tragoa hartu duzu—. Oparitu zenidan gau hartatik ondo gordeta eduki dut, agindu zenidan bezala. Gaur arte. Pentsa zenbat denbora... Txanpona aurkitu dudana bakoitzean galdetu diot neure buruari nondik ote dabil hau. Herrira etortzean ere pentsatu nuen agian ikusiko zintudala eta, hara, hemen gaude zerbeza bat hartzen, azken hogeitaz urteak pasatu ez balira bezala... —barrez amaitu du esaldia eta zerbeza tragoa hartu du.

Ez diozu ezer esan. Tabernariak barra gainean utzi dituen edalontzien kristal hotsa entzuten duzu. Eta inguruan duzun jendetzaren zarata. Nondik ateratzen ote dute hainbeste mintzagai?

—Eta? Zelan bizitza? —galdetu dizu, azkenean, espero zenuen bezala.

Zain geratu da. Zerbait esateko txanda heldu zaizu, baina ez dakizu zer esan. Burua abiaduran darabilzu bueltaka. Baina serbilletetako eskerrik asko etortzeagatik esaldiaz aparte, ez zaizu besterik bururatzen. Nola esan behar diozu? Esan behar al diozu? Nola esan ez duzula gogoratzen, ez dakizula nor den ere, ez dakizula zer txanponez eta zer gauez ari den berbetan. Bere izena gogoratuko bazenu sikiera...

Zure erantzunaren zain dagoe-la, irribarre egin dizu. Hortz zuriak agertu dira eta hogeitaz jausi zaizkio lurrera, kolpean.

Emakume eder baten aurrean eserita, tabernan, zerbeza bat eskuan, pentsatu duzu zerbezaren bitsa bezala desagerrarazi al daitekeen denbora. Eta segundo bakar batean, azken hogeitaz urteak lurrera jausten ikusi dituzu, eskuetatik egin dizute labain, zerbeza botilak eskuetatik labain egiten duen abiaduraz, eta ulertu duzu: heldu zaizu existitzen ez diren oroitzeapenak gogoratzeko ordua.



JESSICA DEL CAMPO